




ESTADÍSTIKA

Arte Eszenikoekoen Ekoizleak



Aurkibidea

Sarrera metodologikoa **3**

1. AGENTEEN EZAUGARRIAK **5**

1.1. Arte eszenikoen ekoizleen mapa **5**

1.2. Ibilbidea **5**

2. DIMENTSION EKONOMIKOA **7**

2.1. Diru-sarrerak eta gastuak **7**

2.2. Enplegua **9**

3. JARDUERA **12**

3.1. Produkzioa **12**

3.1.1. Antzerkia **12**

3.1.2. Dantza **15**

3.2. Emanaldiak **16**

3.2.1. Antzerkia **16**

3.2.2. Dantza **18**

SARRERA METODOLOGIKOA

Arteei buruzko Estatistika abian jartzearen helburua arte eszenikoen, musikaren eta ikusizko arteen sektoreek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten errealitatea zein den jakitea izan da. Zehaztasunez ezarri nahi izan da agenteen mapa (lurraldean duten kokapena, sortze-urtea) eta, halaber, agente horien jarduera ekonomikoaren, sortzen duten enpleguaren eta produkzio-jardueraren ezaugarriak azaldu nahi izan dira.

Hauxe da ikerlan mota honi EAEn ekiten zaion lehenengo aldia, ezaugarri jakin batzuk dituen eremu batean, hots, kultura-eremuan duen garrantziarekin. Eremu horrek, ezaugarri gisa, estatistika-informazio urria du eta erkaketak egitea (sektoreen artean, beste lurralde-errealitate batzuekin) ahalbidetuko duen eta sektore horiek osatzen dituzten agente guztiek (publikoak eta pribatuak) erabakiak hartzea erraztuko duen informazioa biltzeko metodo estandar bat ezartzeko premia du.

Lehenengo edizioa denez gero, oraingo honetan, eragiketaren diseinua eta agenteen errolda gauzatzeko ahaleginak egin dira, batez ere. Ondorengo edizioetan datu-corpora eratuko da, eta sektoreen denbora-bilakaera aztertu ahal izango da hari esker.

Diseinu-faseak hartu duen garrantziak ekarri du parte-hartze fasea handitzea. Fase horretan, sektore bakoitza ordezkatzeko duten elkarteei eskatu diegu beren ezagutzaren berri emateko eta iruzkinak nahiz proposamenak egiteko, galdesortean diseinua egokitu eta agenteen erroldak garbitzearen.

Bildutako informazioaren erreferentzia-urtea 2007a da. Datu hori oso kontuan izan behar da data horretatik gaur egun arte aldaketa asko gertatu direlako, neurri batean ziklo-aldaketa adierazten duten garrantzi handiko eraldaketak, hain zuzen ere. Ekonomia-krisi globalaren testuinguruaz gain, arteak (arte eszenikoak, musika, ikusizko arteak) teknologia berrien inpaktuarekiko sentikorrak dira maila guztietan (enpresa-egitura mota, jarduera mota eta bolumena, banaketa eta abar). Ildo horretatik, litekeena da 2007ko datuek ezin islatu izatea gaur egungo berezkoak diren errealitate berriak.

Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena	Kultura Industrien Estatistika – Arte Eszenikoen Ekoizleak
Eragiketaren estatusa	Eustatek ofizial egina
Aldizkakotasuna	Bi urtean behin
Eragiketa mota	Erroldaren eragiketa
Informazioa biltzeko aldia	2008ko irailetik 2009ko maiatzera
Informazioaren erreferentzia-urtea	2007
Landa-lana egiteko ardura duen enpresa	Ikertalde Grupo Consultor
Kontsultatutako elkarteak	Eskena (antzerkia) APDPV (Euskal Autonomia Erkidegoko Dantza Profesionalen Elkarteak) – lehen ADDE– (dantza)

Kontzeptuzko definizioak

Arte eszenikoak produzitzen dituzten agenteei buruzko azterlanak duen irismena mugatzeko, hainbat oinarritzko irizpide eta definizio ezarri dira.

Honako hau hartzen da arte eszenikoak produzitzen dituen agentetzat: edozein generotako obra eszenikoak (antzerkia, dantza, opera, zirkoa, magia, musika-antzerkia, txotxongiloak eta marionetak, kale-antzerkia eta bestelako eszena-genero gutxiengodunak) produzitzeko ekimena eta erantzukizuna bere gain hartzen duen edozein erakunde publiko edo pribatu, EAEn egoitza duena. Hortaz, antzerki- eta dantza-konpainiak dira arte eszenikoak produzitzen dituzten agenteak.

Errolda egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Soilik produkzio-agente profesionalak hartu dira kontuan, eta talde amateur guztiak kanpo geratu dira. Eszena-produkzioa jardun ordaindu eta ohiko gisa duten agenteak hartzen dira profesionaltzat, baldin eta jardun hori haien *modus vivendi* nagusia bada.
- Gutxienez azken hiru urte hauetan (2005-2007) ikuskizunen bat produzitu edo ustiatu duten eta 2007an gutxienez sei emanaldi gauzatu dituzten produkzio-agenteak soilik hartu dira kontuan.

Errolda eta erantzun-maila

Azken erroldan 68 agente, 50 antzerki-konpainia eta 18 dantza-konpainia hartu dira aintzat. % 90eko erantzun-maila lortu da, eta balioetsitako erantzunak % 10 izan dira.

1. AGENTEEN EZAUGARRIAK

EAEko eszena-produkzioan lurralde honetako antzerki- eta dantza-konpainiak dira nagusi. Konpainia horien oinarrizko ezaugarriak berdinak dira (guztiak ekimen pribatuak dira), baina beren ibilbideari, dimentsioari eta jarduerari dagokionez, ordea, aldeak oso handiak dira.

1.1. ARTE ESZENIKOEN EKOIZLEEN MAPA

EAEn, lurralde osoan banatuta dauden 68 konpainia zenbatu dira; horien artetik, 50ek antzerkian dihardute, eta 18k dantzan.

Gipuzkoan dago konpainia kopuru handiena, ia erdiak (33) lurralde horretan baitaude. Bigarren postuan Bizkaia dago, lurralde horretan 26 konpainia baitaude, eta Araba da kopuru txikiena duen lurraldea (9).

1. irudia. Konpainia kopurua, konpainia tipologiaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2007

Konpainia tipologia	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIRA	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Antzerkia	7	%77,8	19	%73,1	24	%72,7	50	%73,5
Dantza	2	%22,2	7	%26,9	9	%27,3	18	%26,5
GUZTIRA	9	%100,0	26	%100,0	33	%100,0	68	%100,0

1.2. IBILBIDEA

Hogei urtetik gorako ibilbidea duten antzerki-konpainiak izateaz gain, duela gutxi konpainia berriak ere sortu dira eta horrek erakusten du sektorea heldua dela eta bere dinamikak erabat egonkorak direla.


Konpainia guztietan egiaztatu da kolektiboak sortzeari dagokionez etengabea izan dela jarduna. Hamarkada guztietan jarri dira abian konpainia berriak, baina azken urte hauetan (2002.-2007. urteetan) zertxobait igo da kopurua.

Antzerki-konpainien artean, esan daiteke, alde batetik, konpainia asko laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdea baino lehenago (1988tik 1996ra bitarteko aldiak eta 1987aren aurreko

aldiak batuta) sortu zirela eta finkatutako ibilbideak dituztela. Konpainia horiek EAEn dauden antzerki-konpainien % 56 dira. Bestetik, datuek erakusten dute, halaber, sektorea berritzeko joera dagoela; izan ere, hamar urtetik beherako ibilbidea duten 22 konpainia daude (gainerako % 44a).

Dantza-konpainien artean, ordea, joera desberdinak daude. Gehienak, % 61,1, azken urte hauetan sortu dira (2002tik 2007ra bitarte); gainerako % 38,9ak, ordea, 2001. urtea baino lehen ekin zion bere ibilbideari. Hortaz, kontuan izan beharko da dantza-konpainia kopuru handi batek ez duela bost urtetik gorako etengabeko jarduerarik; litekeena da alderdi horrek azaltzea, hain zuzen ere, konpainia horiek zenbateraino ezarri diren EAEko zirkuitu eszenikoetan.

2. irudia. Konpainiak, jarduerari hasiera eman zitzaioneko urtearen arabera. 2007



2. DIMENTSION EKONOMIKOA

2.1. DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

Antzerki- eta dantza-konpainien diru-sarreraren guztizko bolumena gutxi gorabehera 11,5 milioi eurokoa eta 1,3 milioi eurokoa da, hurrenez hurren. Nolanahi ere, datuak xehetasunez aztertzen badira, ikusi ahal izango da ekarpen publikoek zenbateraino ahalbidetzen duten aurrekontuak orekatzea.


EAEko antzerki-konpainiek 11,5 milioi euroko diru-sarrerak dituzte; kopuru hori gastuak baino zertxobait handiagoa da, eta kopuru hori 1,1 milioi euroko balantze global positiboari dagokio.

Dantza-konpainien emaitza global positiboak ez luke sektorearen errealitate oso desberdina ezkutatu behar. Balantze horiek ez dituzte irabazizko jarduerak irudikatzen, guztiz kontrakoa baizik: sektorearen berezko hauskortasunak (zorpetzeko gaitasun gutxi edo batere ez, «autoustiapen» handia, lan-kolokatasuna) eta diru-laguntzen babesak eragiten dute orekarako joera.

3. irudia. Agenteen diru-sarrerak eta gastuak, tipologiaren arabera (eurotan). 2007

	Antzerkia	Dantza	GUZTIRA
Diru-sarrerak	11.493.863	1.313.985	12.807.848
Gastuak	10.360.867	1.254.278	11.615.146

4. irudia. Antzerki- eta dantza-konpainien diru-sarreraren eta gastuen balantzea. 2007




Antzerki- eta dantza-konpainien diru-sarrerak beren jardueratik eratortzen dira batez ere (% 79,3); kontzeptu horretan konpainiaren katxea eta bildutako diru-kopuruaren ehunetik (programatzailearekin itundutakoa) lortzen diren diru-sarrerak biltzen dira. Diru-laguntza publikoak dira diru-sarreraren bigarren iturria: guztizkoaren % 14,6. Azkenik, gainerako % 6,1a babesari edo koprodukzioari esker lortutako diru-sarrerei dagokie.

Kontuan hartzen badugu programatzaile gehienak (EA Eren kasuan guztiak) publikoak direla, diru-laguntzen bitartez ematen diren zuzeneko laguntzez gain, administrazio publikoak zeharkako laguntza handia ematen du leihatilan bildutako diru-kopuruaren (konpainiekin itundutakoa) ehunekoaren bitartez.

Antzerki-konpainien diru-sarreraren % 80 baino gehiago konpainia horien jarduerarenemaitza da, eta % 6,2 babesen edo koprodukzioen ondorio. Hortaz, antzerki-konpainien autofinantzaketa-maila (diru-laguntzetatik ez datozen diru-sarreraren garrantzia) % 87,6 da, oso kopuru garrantzitsua.

Dantza-konpainien autofinantzaketa-maila % 66,3 da; kopuru hori ulertzen da laguntza publikoek garrantzi handia dutelako termino erlatiboetan (% 33,7koa). Gainerako diru-sarrerak (batez ere babesak edo koprodukzioak) egonkorak dira: guztizkoaren % 5 inguru.


5. irudia. Antzerki- eta dantza-konpainien diru-sarrerak, diru-sarreraren kontzeptuaren eta tipologiaren arabera (eurotan). 2007



Konpainien gastuen erdia baino gehiago langileei dagokie (% 52,5), betiere plantillako langileak eta kanpoko langileak kontuan hartuta. Gastu handiena eragiten duen bigarren kontzeptua jarduerari dagokiona da.

Antzerki-konpainien jarduera-gastua guztizkoaren gaineko ia % 34koa da, eta langileek eragiten duten gastuaren batura % 53,2ra iristen da. Jarduerari dagokion gastuaren garrantzia handiagoa da dantza-konpainien kasuan, eta langileei dagokien gastua, aldiz, txikiagoa. Plantilla txikiak dituzten dantza-konpainien garrantziak azaltzen du jarduera-gastuek garrantzi handiagoa hartzea konpainia tipologia honen emaitzen kontuan.

6. irudia. Antzerki- eta dantza-konpainien gastuak, gastuaren kontzeptuaren eta tipologiaren arabera (eurotan). 2007



2.2. ENPLEGUA


EAEko antzerki- eta dantza-konpainiek zuzeneko 180 lanpostu baino gehiago sortzen dituzte, betiere urte batean lanaldi osoan jardun duten langileen pareko kalkulua kontuan hartuta. Lanpostu horien artetik gehienak arte-langileenak dira (% 62,6) —aktoreak, dantzariak, musikariak, zuzendariak eta abar— ondoren, kudeaketako langileenak daude (% 26,4) —gerenteak, administrariak, kontulariak eta abar—, eta, azkenik, teknikarientzako (% 9,6) —soinua, argiak, muntaia, jantziak eta abar—.

Antzerki-konpainiek zuzeneko 165,2 lanpostu sortzen dituzte (kalkulu hori lanaldi osoan jarduten duten langileak kontuan hartuta egiten da) eta dantza-konpainiek, aldiz, 18,4. Kontuan izan behar da, alde batetik, antzerki-talde gehiago dagoela (50 agente ekoizle), eta, bestetik, konpainia horiek handiagoak direla (3,3 langile batez beste).

18 dantza-konpainiek sortzen dituzten 18,4 lanpostuak ez dira 18 pertsonarekiko baliokideak (lanaldi osoko langileak kontuan hartuta egindako kalkulua da; hortaz, lanaldi partzialeko langile

gehiagoren parte-hartzea ere aintzat hartzen du); aitzitik, sektorearen antolamendu-egituraren ezaugarria, neurri handi batean, pertsona bakarreko proiektuak izatea da (dedikazio profesional osoari dagokionez), eta proiektu horiek produkzioetatik eratorritako premien eta aukeren arabera hazten dira.

7. irudia. Arte eszenikoak produzitzen dituzten agenteetako langileak, tipologiaren arabera (lanaldi osoko langileak, batez beste). 2007




8. irudia. Arte eszenikoak produzitzen dituzten agenteen erabateko enplegua (lanaldi osoko langileak, batez beste) eta enpleguaren batez bestekoa, tipologiaren arabera. 2007

	Antzerkia	Dantza	GUZTIRA
Langileak (lanaldi osokoak, batez beste)	165,2	18,4	183,6
Batez bestekoa	3,3	1,0	2,7


Bi kasuetan, artistek dute garrantzi handiena: langileen % 72 dantza-konpainien kasuan, eta % 60tik gorakoa antzerki-konpainien kasuan. Kudeaketaz arduratzen diren langileen kopurua guztizko langileen % 27 da antzerki-konpainietan, eta % 20,3 dantza-konpainietan; gertakari hori dimentsio desberdinetako ikuskizunak kudeatzeak dakartzan premiei egotz dakioke. Kontratazio motaren arabera, antzerkia produzitzen dutenek sortzen duten enplegua finkoa da batez ere (% 59,2).

Aitzitik, dantza-konpainiek sortzen dituzten lanpostuak behin-behinekoak dira batez ere (% 57,0); konpainia horiek, arestian esan dugunez, beren proiektu artistikoak gauzatzeko oso egitura txikiak (noizbehinkako laguntzak dituztenak) dauzkatelako.

9. irudia. Antzerki- eta dantza-konpainietako langileak, dedikazioaren eta tipologiaren arabera (lanaldi osoko langileak, batez beste). 2007



10. irudia. Antzerki- eta dantza-konpainietako langileak, kontratazio motaren eta programatzaile tipologiaren arabera (lanaldi osoko langileak, batez beste). 2007



3. JARDUERA

3.1. PRODUKZIOA

2007an, arte eszenikoak produzitzen dituzten EAEko konpainiek 81 ikuskizun produzitu dituzte, 54 antzerkikoak izan dira, eta 27 dantzakoak.

3.1.1. Antzerkia¹

Gipuzkoa da antzerki-produkzio kopuru handiena biltzen duen lurraldea, EAEn sortutako ikuskizun guztien % 48,1, hain zuzen ere. Kopuru hori antzerki-agente asko biltzearekin lotzen da zuzenean (gutzizkoaren % 48). Bestalde, Bizkaian eta Araban ikuskizunen % 38,9 eta % 13,0 produzitzen dira, hurrenez hurren; ehuneko horiek bi lurralde horietan biltzen den ekoizle kopuruaren oso antzekoak dira.

11. irudia. Antzerki-konpainiek produzitzen duten ikuskizun kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. 2007


	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIRA	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Produzitutako ikuskizunak	7	%13,0	21	%38,9	26	%48,1	54	%100,0

2007an sortutako antzerki-ikuskizunen % 44,4 testu-antzerkiak dira; hori da argi eta garbi nagusitzen den generoa. Objektu-antzerkia produzitutako kopuruaren % 17,5 da, eta bigarren postuan dago; kale-antzerkia da (% 12,3) ikuskizun kopuru handiena duen hirugarren generoa.

Hizkuntzari dagokionez, ikuskizun berari buruz euskarazko eta gaztelaniazko bertsoak eskaintzen diren produkzioak nagusitzen dira (% 46,3); aitzitik, bi hizkuntzetako bakar batean soilik sortzen diren ikuskizunak % 20,4 eta % 25,9 dira, hurrenez hurren.

¹ Antzerki-produkzioaren barruan honako hauek sartzen dira: testu-antzerkia (drama, komedia, eta abar), musika-antzerkia, objektu-antzerkia, keinu bidezko antzerkia, kale-antzerkia, magia eta ilusionismoa eta bestelako arte eszenikoak (antzerki lirikoak, barietateak, performanceak, irakurketa dramatizatuak eta abar).


12. irudia. Antzerki-konpainiek produzitutako ikuskizunak, generoaren arabera. 2007




13. irudia. Antzerki-konpainiek produzitutako ikuskizunak, hizkuntzaren arabera. 2007

Berezko sormeneko ikuskizunak nagusitzen dira EAEko antzerki-konpainien jarduera sortzailearen artean, produzitutako ikuskizunen % 75,9 baitira. Antzerki-bertsioetan oinarritutako produkzioak (% 11,1) eta antzerkirako ez diren iturrien egokitzapenak (% 7,4) praktikoak dira eta askoz ere garrantzi gutxiago dute. Produkzio horien artetik, ikuskizunen % 13 soilik dira koprodukzio-erregimenean konpainien artean partekatu diren proiektuak.

14. irudia. Antzerki-konpainiek produzitutako ikuskizunak, sormen motaren arabera. 2007




15. irudia. Antzerki-konpainiek produzitutako ikuskizunak, koprodukzioaren arabera. 2007




Ikuskizunen produkzio-kostuaren gorabeherak sektore-errealitate oso desberdinaren berri ematen du, dimentsio desberdineko enpresa-proiektuak eta proiektu artistikoak baitaude. Izan ere, konpainia askok aurrekontu txiki batera egokitu behar dituzte beren sorkuntzak, baina beste zenbait konpainiek, ordea, garrantzi handiko produkzioak gauzatzea lortzen dute. Antzerki-produkzioen erdiak baino gehiagok 20.000 eurotik beherako kostuak dituzte. Hala eta guztiz ere, antzerki-produkzioen kostua 20.000 eurotik 150.000 eurora bitartekoa da kasuen % 44,4tan. Bestalde, produkzio handiak guztizkoaren % 3,7 baino ez dira.

Antzezle kopuruak ere produkzioaren ezaugarriei buruzko informazioa ematen du. Ildo horretatik, egiaztatzen da sortutako ikuskizun gehienek, hots, hiru laurdenek, bost antzezle baino gutxiago dituztela.

16. irudia. Antzerki-konpainiek produzitutako ikuskizunak, produkzio kostuaren arabera. 2007



17. irudia. Antzerki-konpainiek produzitutako ikuskizunak, antzezle kopuruaren arabera. 2007




3.1.2. Dantza¹

2007an, EAEko 18 dantza-konpainiek 27 ikuskizun produzitu zituzten, hau da, batez beste 1,5 ikuskizun konpainia bakoitzeko. Kasuen ia % 16tan ikuskizuna koproduzitua izaten da; ildo horretatik, dantza-konpainiek lankidetzaz-estrategiak ezarri ohi dituzte batez ere agente publikoekin eta jaialdiekin beren produkzioak merkaturatzeko.

18. irudia. Dantzaren alorreko produkzio-etxeen konpainiek produzitutako ikuskizunak, Lurralde Historikoaren arabera. 2007


	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIRA	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Produzitutako ikuskizunak	5	%18,5	11	%40,7	11	%40,7	27	%100,0

19. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek produzitutako ikuskizunak, koprodukzioaren arabera. 2007




Dantza-alorreko konpainiek 3.000 eurotik beherako produkzio-kostuarekin lan egiten dute kasu gehienetan (produzitutako hamar ikuskizunetik seitan). Horri esker ulertzen da, neurri handi batean, ikuskizunen % 22,2k soilik edukitzea bost antzezle baino gehiago.

20. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek produzitutako ikuskizunak, produkzio-kostuaren arabera. 2007



1 Honako dantza-estilo hauek biltzen dira: gaur egungo dantza, ballet klasikoa eta neoklasikoa, ballet modernoa eta espainola.

21. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek produzitutako ikuskizunak, dantzari kopuruaren arabera. 2007



3.2. EMANALDIAK

3.2.1. Antzerkia


EAEko antzerki-konpainiek 171 ikuskizun ustiatu zituzten 2007an, eta 5.002 aldiz antzeztu zituzten, horrek esan nahi du ustiatutako ikuskizun bakoitzeko 29,3ko ratioa izan zela.

22. irudia. Antzerkia produzitzen duten konpainiek ustiatutako ikuskizunak eta egindako antzezenak. 2007

	Ustiatutako ikuskizunak		Antzezenak		Antzezenak / ustiatutako ikuskizunak
	Maizt.	%	Maizt.	%	
GUZTIRA	171	%100,0	5.002	%100,0	29,3


Konpainien antzezenen erdia baino gehiago EAE barruan egin ziren. Hala eta guztiz ere, Estatuko gainerako erkidegoetako merkatuak garrantzi handia dauka; izan ere, antzezenen % 40 lurralde-eremu horretan kontratatu ziren. Aitzitik, atzerriko merkatuan sartzea zailagoa da; merkatu hori guztizkoaren % 6,6 soilik baita.

23. irudia. Antzerkia produzitzen duten konpainiek egindako antzezenak, antzezlekuaren arabera. 2007




Ikusi denez, antzerki-konpainien artean ohikoa da euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaintzen diren ikuskizunak produzitzea. Ikuskizun horiek antzeztutako ikuskizunen % 63,2 dira. Bi hizkuntzetako batean soilik eskaintzen diren ikuskizunei dagokienez, euskaraz eskaintzen direnak ikuskizunen % 16,6 dira, eta gaztelaniaz eskaintzen direnak % 13,2.

24. irudia. Antzerkia produzitzen duten konpainiek egindako antzeppenak, hizkuntzaren arabera. 2007




EAEko konpainiek egindako antzeppen artean, bi genero nagusitzen dira nabarmen: testu-antzerkia egindako antzeppen % 41,1 eta objektu-antzerkia % 20,1ekin. Garrantzi gutxiago duten generoen artean, keinu bidezko antzerkia eta magia eta ilusionismoa aipatu behar dira, antzeppen % 5,7rekin eta % 5,4rekin, hurrenez hurren.

25. irudia. Antzerkia produzitzen duten konpainiek egindako antzeppenak, generoaren arabera. 2007




Katxea elementu garrantzitsuetako bat da produzitutako ikuskizunak saltzeko, eta horren froga da antzeztutako hamar ikuskizunetik zazpi 3.000 eurotik beherako katxea dutela. Horren ondorioz, antzezle kopurua (hori ere ikuskizunaren dimentsioaren adierazgarria da) 5etik beherakoa da kasuen % 83tan.

26. irudia. Antzerkia produzitzen duten konpainiek egindako antzezenak, katxe-tartearen arabera. 2007



27. irudia. Antzerkia produzitzen duten konpainiek egindako antzezenak, antzezle kopuruaren arabera. 2007



3.2.2. Dantza


EAEko dantza-konpainiek 44 ikuskizun ustiatu zituzten 2007an, eta horietatik 368 antzezen egin ziren, hau da, ikuskizun bakoitzeko 8,4 emanaldi batez beste. Ratio horri esker ulertzen da, neurri handi batean, produkzioen aurrekontuei eta antzezle kopuruari dagokionez, dimentsioa txikia izatea. Izan ere, produkzio-kostuak ikuskizunak ustiatzeko aukera handia edo txikia izatera egokitzen dira, eta batez beste, ikuskizun bakoitzerako egindako inbertsioa antzezen gutxitan berreskuratu behar da.

28. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek ustiatutako ikuskizunak eta gauzatutako emanaldiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2007

	Ustiatutako ikuskizunak		Emanaldiak		Emanaldiak / ustiatutako ikuskizunak
	Maizt.	%	Maizt.	%	
Araba	7	%15,9	42	%11,4	6,0
Bizkaia	17	%38,6	121	%32,9	7,1
Gipuzkoa	20	%45,5	205	%55,7	10,3
GUZTIRA	44	%100,0	368	%100,0	8,4

Nahiz eta emanaldien ehunekoaren arabera, dantza-konpainien presentzia batez ere EAEn den nagusi, ezin da aipatu gabe utzi beste merkatu batzuetan duten presentzia. Izan ere, antzezpenen % 22,6 Estatuko gainerako erkidegoetan egin dira, eta % 18,8 atzerrian. Nahiz eta atzerrian gauzatutako emanaldien ehunekoa nabarmena izan, gogoratu behar da merkatu horietan konpainia gutxik lortu dutela sartzea. Dantzaren lengoaiaren oinarria hizkuntza ez izateak lagun dezake atzerrira jauzi egiten. Era berean, kontuan izan behar da dantza-ikuskizunen ustiapen-maila txikia izateak ahalbidetzen duela, termino erlatiboetan, nazioarteko jaialdiak eta zirkuituak garrantzitsuagoak izatea.


29. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek gauzatutako emanaldiak, emanaldia gauzatu den lekuaren arabera. 2007




Gauzatutako ikuskizunen katxea bat dator produkzioaren dimentsioarekin, eta gorago esan dugunez, produkzio horren kostua txikia da. Konpainiek 3.000 eurotik beherako katxea jaso dute gauzatutako hamar ikuskizunetik seitan. Gainerako lauek 6.000 eurotik beherako katxea jaso dute; izan ere, antzezpenen % 3k soilik gainditzen du kopuru hori.

Katxe horiekin, konpainiek 5 dantzarekin baino gutxiagorekin gauzatzen dituzte emanaldiak kasuen % 55,4tan, eta dimentsio txikieneko ikuskizunak nagusitzen dira. Hala eta guztiz ere, gauzatutako emanaldien % 30,7tan 6-10 dantzarik hartzen dute parte, eta % 13,9tan hamar baino gehiagok.

30. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek gauzatutako emanaldiak, katxe-tartearen arabera. 2007



31. irudia. Dantza produzitzen duten konpainiek gauzatutako emanaldiak, dantzari kopuruaren arabera. 2007



Lan honen bibliografia-erregistroa **Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren** katalogoan aurki daiteke:

<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>> .



Argitaraldia: 1.a, 2010ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com

Lege-gordailua: VI 156-2010